

OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Basauriko Osoko Bilkurak 2013.ko otsailaren 28an, Ostalaritza Establezimenduak Arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman zion. Behin erabaki hori jedaurrean ikusgai egoteko epea igarota eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsita dagoela ulertzen da. Horrenbestez, bere testu osoa jarraian argitaratzen da (Tokiko Araubidearen Oinarrien 7/85 Legeak bere 49. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik).

Zioen azalpena

Indarrean sartu da 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, zenbait lege aldatu dituen barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/CE Zuzentarauari egokitzeko. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra izan da aldatutako lege autonomikoetako bat eta, ondorioz, Ordenantza hau ere egokitu beharra dago. Aipatutako aldaketen eraginez are gehiago murriztu dira Ordenantzan jasotako zenbait muga, besteak beste talde ezberdinetako ostalaritza-establezimenduen artean gorde beharreko tarteei dagozkienak.

3/1998 Legearen aldaketak finkatu du zeintzuk diren Aurretiazko Jakinarazpena behar duten Jarduera eta Instalazio Sailkatuak. Ostalaritza-establezimendu gehienak sailkapen horren barruan daude eta horientzako prozedura nabarmen erraztu da: orain ez dute Aurretiazko Jarduera Lizentziarik behar izango. Aitzitik, Udal Ordenantza honetan zehatzago garatzen dira halako jarduerak ezartzeko bete beharreko Baldintza Teknikoak, adibidez: higiene eta osasun baldintzak, aireztatzea, suteen aurkako babesa, irisgarritasuna, isolamendua eta intsonorizazioa.

Zentzu horretan, Ordenantzaren 12. artikulua, batetik, Jarduera Lizentziaren menpe jarraitzen duten ostalaritzako jardueretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa zein den zehaztu du; bestetik, jarduera horien zerrenda egin du eta dagoeneko Jarduera Lizentziarik behar ez duten ostalaritzako jarduerengandik, alegia, "Aurretiazko Jakinarazpena behar duten Jarduera Sailkatuak" izenekoengandik, bereizi ditu.

Era berean, ostalaritzako jarduera ezberdinen taldeen izenak egokitu egin dira, Eusko Jaurlaritzak xedatutakoarekin bat etor daitezzen eta errazagoa izan dadin ordutegiak, edukiera, eta abar betetzen direla kontrolatzea. Hala, bada, 4 talde zehaztu dira ostalaritzako jardueretarako, eta beste 4 joko-lokaletarako.

1. artikulua.- Xedea

Honako hau da Ordenantza honen xedea:

- a) Hirigintza arloan, ostalaritzako erabilera izan dezaketen lokalen erabilera arautzea, udalerriko edozein lurzoru-motatan koka daitezkeenak, eta muga jartzea gogaikarrien suerta daitezkeen ostalaritza-jarduera berriak ezartzeari.
- b) Udalerrri guztiko ostalaritza-establezimenduek eta joko-lokalek bete behar dituzten gutxieneko ingurumen-baldintza teknikoak definitzea.
- c) Halako jarduerak ezartzeko edo aldatzeko prozedurak argitzea, hasiera-hasieratik ezagunak izan daitezen ostalaritzako jarduerari galdatu ahal zaizkien eskakizunak eta baldintzak.

2. artikulua- Aplikazio eremua

Udal Ordenantza hau 3. artikuluan eta antzekoetan bildutako ostalaritza-jarduera guztiei aplikatuko zaie, udalerrri guztian ezarriko direnei, alegia. Administrazio Publikoek sustatutako ostalaritza-jarduerak salbuetsita egon eta Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira.

Era berean, Ordenantza honetatik kanpo geratuko dira, espresuki, aldi baterako diren ostalaritza-jarduerak: zirkoetako, barraketako, txosnetako eta desmuntatzeko diren beste egituretako tabernak edo jatetxeak, aldi baterako bide publikoan edo jai-eremuetan jartzen direnean.

3. artikulua.- Lokalen sailkapena

3.1.- Ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunetarako lokalak

1. taldea.- Bereziki adingabeentzat baimendutako lokal edo instalazioak, edota sukaldaritzako jarduerarik eduki ez eta alkoholik gabeko edariak zein janaria saltzeko baimena dutenak, hala nola: gazteek dantzatzeko eta jaiak egiteko aretoak, gazteentzako diskotekak, dastategiak, izozki-dendak, txokolategiak, txurro-dendak, croissant-dendak, te-aretoak eta antzekoak.

2. taldea.- Alkoholik edariak saltzeko edo sukaldaritzako jarduerak egiteko baimena duten lokalak eta instalazioak: tabernak, upategiak, kafetegi-tabernak, snack-tabernak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta antzekoak.

3. taldea.- Dantza-pistarik izan gabe, jarduera berezi bezala musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak: taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-tabernak, karaokeak eta antzekoak.

4. taldea.- Dantza-pistadun lokalak, musika izateko edota ikuskizunak egiteko baimena dutenak: dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak ematen dituzten jatetxeak eta antzekoak.

3.2.- Joko-lokalak

1. taldea.- Jolas-aretoak.

2. taldea.- Joko-aretoak.

3. taldea.- Bingoak.

4. taldea.- Kasinoak.

4. artikulua.- Gutxieneko distantziak eta ordutegiak

4.1.- Gutxieneko distantziak

1. eta 2. taldeko edozein establezimendu libreki jar daiteke.

3. eta 4. taldeetako establezimenduak jartzeko, ordea, honako gutxieneko tartek gorde beharko dira, udalerrri guztian:

- 100 metro, 3. taldeko establezimenduen artean.
- 150 metro, 3. taldeko eta 4. taldeko establezimenduen artean.
- 200 metro, 4. taldeko establezimenduen artean.

Gutxieneko distantzia ez da mugatuko jarduerak taldez aldatzen direnean, baldin eta jarduera horiek Ordenantza honi onespena ematen zaionean jadanik ezarrita badaude.

4.2.- Distantziak neurtzeko irizpideak

Aurreko puntuan zehaztutako gutxieneko distantziak betetzen diren ala ez zehazteko, Udal Zerbitzu Teknikoek "in situ" neurtuko dute distantzia, jarraian ezarritako irizpideen arabera:

Distantziak neurtuko dira oinezkoen ibilbide laburrenaren ardatzetik. Instalatu nahi den establezimendu baten eta jadanik martxan dagoen lokal hurbilenaren arteko distantzia neurtzeko, lerro bat hartuko da. Lerro horren hasiera-puntua, jadanik baimendutako jarduerak okupatzen duen lokaleko fatxadaren muga-puntuan egongo da, hain zuzen ere, eskatu berri den aktibitate gertuen dagoen aldetik hasita; lerro horren bukaera-puntua, berriz, instalatu nahi den jardueraren lokaleko fatxadaren muga-puntuan egongo da, jadanik martxan dagoen jardueratik gertuen dagoen aldean.

4.3.- Ordutegiak

Eusko Jaurlaritzak Dekretu bidez ezarriko ditu jardueren ordutegiak.

Ostalaritzako lokalek, jendaurreko ikuskizunetarako lokalek eta joko-lokalek, identifikazio-bereizgarria jarri beharko dute kanpoaldean, zein taldetakoak diren adierazita. Era berean, lokala zein ordutan ireki eta itxiko den jasotzen duen kartela jarri beharko dute. Hala xedati du Herrizaingo sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokaletako ordutegiei eta identifikazio-bereizgarriei buruzkoak.

5. artikulua.– Baldintza bereziak

3. eta 4. taldeko establezimenduek, baita 300 pertsonatik gorako okupazioa duten 1. eta 2. taldeko establezimenduek ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Udalaren zigilua duen lizentzia edo udal-baimenaren kopia eduki behar da ikusgai, lehentasunezko tokian eta jendeak ikusteko moduan. Bertan, ondoko hauek jasoko dira: lokalaren izena eta kokapena, titularra nor den, baimendutako jarduerak, gehienez ere baimendutako pertsonen kopurua eta nahitaez bete beharreko baldintza edo neurri zuzentzaileak.
- b) Aktibitatearen titularrak, lokalean aldi oro dauden pertsonen kopurua kontrolatzeko modua eduki beharko du, Udaltzaingoa edozein unetan datu hori lortzeko aukera izan dezan.

6. artikulua.- Higiene eta osasun baldintzak

6.1.- Komun publikoak

Gai horri buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa izango da kontuan, eta gutxieneko hau ezartzen da:

- Jendeari eskainitako eremuaren azalera erabilgarria 300,00 m² artekoa, edo horren zatikia denean: bi komun, bata gizonezkoentzat eta bestea emakumezkoentzat, horietako bat mugikortasuna murriztua duten pertsonen erabilerarako egokitua.
- 300,00 m² baino gehiago: bikoiztu egingo dira aurreko atalean adierazitako zerbitzuak.

Jantokia duten jardueretan, txokoak eta antzekoak salbu, komunak jendearentzako eremutik isolatuko dira eta, horretarako, aurrean atondoa jarriko zaie.

6.2.- Aireztatzea

Jarduera horietarako lokalen barrualdean sor daitekeen aire kutsatu edo arrarifikatua berritzeko, ohiko aireztatze-sistemak erabiliko dira. Berrizatzea egingo da establezimenduaren edukiera aintzat hartzen duten kadentzietan eta enbarazurik sortu gabe.

Indarrean dagoen EKTan (Eraikuntzako Kode Teknikoan), horri buruzko DB-HS Oinarrizko Dokumentuan (Osasungarritasuna), ezarritakoa bete beharko da.

Berotzeko, hozteko eta airetzatzeko sistemak instalatzeko orduan, indarrean dagoen Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudiak xedatutakoari lotu beharko zaio.

Erabat debekatuta dago janaria prestatzeko tresnak (sua, frijigailua, plantxa, sutontzia, labea edo antzekoak) sukaldeko eremutik kanpo erabiltzea.

Sukalde gisa erabiltzen den lokalak 4,00 m² baino handiagoa den azalera duenean, kea material erregaitzeko hodi batetik aterako da; hodi hori eraikineko estalkia baino 2,00 metro altuagoa izango da eta kea ateratzeko ezingo dira erabili eraikinak aireztatze komunerako eduki ditzakeen hodiak.

Sukaldea 4,00 m² baino txikiagoa denean eta pintxoak prestatzeko bakarrik erabiltzen denean, keak eta gasak arazteko ke-kanpaia jarriko da; keen irteera, gainera, fatxadan jarri ahal izango da.

Lokaleko aire kutsatua biltzeko, arazteko eta botatzeko sistema egokiak erabiliko dira, usainik, zaratarik edo dardararik sortzen ez dutenak. Aire kutsatua ateratzeko sistema mekanikoen (kanporatze-saretoen) irteera-puntuak, espaloitik 2,00 metrotara jarriko dira gutxienez, eta jarduerarena ez den edozein tartetatik 2,00 metrotara. Derrigorrezkoa izango da airea kanporatzeko hodian, aire kutsatua arazteko iragazkiak jartzea.

7. artikulua.- Suteen aurkako babesa

Lokalek indarrean dagoen araudia beteko dute, bereziki Eraikuntzako Kode Teknikoak "Segurtasuna sutea dagoenean" DB-SI Oinarrizko Dokumentuan jasotakoa. Honako baldintza hauek beteko dituzte, espresuki:

- Sutea barruan hedatzea.
- Sutea kanpoan hedatzea.
- Bertan daudenak kanpora ateratzea. Gehienez baimendutako pertsonen kopurua.
- Suteen aurkako instalazioak.
- Suhiltzaileen parte-hartzea.
- Suteen aurkako egitura.

8. artikulua.- Irisgarritasun-baldintzak

Lokalak berritzeko, handitzeko edo eraldatzeko obrak egiten direnean Ordenantza honetan aurreikusitako erabileretarako, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak edo haren ordezkoko Xedapenak irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzak beteko dira.

9. artikulua.- Isolamendu eta intsonorizazio neurriak

Lokalek, intsonorizazio egokia bermatze aldera, artikulua honetan jasotako neurri zuzentzaileak bete beharko dituzte.

Makina guztiak dardaren aurkako elementuekin finkatuko dira, eraikineko egiturara zein ondoko lokal eta etxebizitzetara zaratak eta dardarak igarotzea ekiditeko.

Lokalean sortzen den **aireko zarataren isolamendua** egokia dela bermatzeko, zarata arrosaren isolamendu globalaren indizea gertuko etxebizitzekiko, dB(A)-etan, isolamendukurban 100 Hz eta 5 Khz artean kalkulatuta, gutxienez ere honako hau izango da:

- 2. taldean egon eta, 4 ohmioko karga estandarrerako, 50 vatio baino gutxiagoko potentzia eraginkorreko musika-ekipoa duten lokalak: 65 dB(A).
- 2. taldean egon eta, 4 ohmioko karga estandarrerako, 50 vatio baino gutxiagoko potentzia eraginkorreko musika-ekipoa duten lokalak, eta 3. taldeko lokalak: 70 dB(A).
- 4. taldeko lokalak: 75 dB(A).

Soinua igortzeko tresnei soinu-mugatzzaileak jarriko zaizkie, jardueran, aldi oro, **igorrirako soinuak** honako **maila** hauek ez gainditzea bermatzeko:

- 1. taldeko lokalak, eta 2. taldean egon eta, 4 ohmioko karga estandarrerako, 50 vatio baino gutxiagoko potentzia eraginkorreko musika-ekipoa duten lokalak: 75 dB(A).
- 2. taldean egon eta, 4 ohmioko karga estandarrerako, 50 vatio baino gutxiagoko potentzia eraginkorreko musika-ekipoa duten lokalak, eta 3. taldeko lokalak: 90 dB(A).
- 4. taldeko lokalak: 100 dB(A).

Kalean, 1,00 m-tara, zabalik dagoen atearen aurrean neurketa egin eta 8etatik 22etara 60 dB(A) eta 22etatik 8etara 40 dB(A) gainditzen badira, soinua zuzenean kanpora transmititzea ekiditeko, lokaleko ohiko sarreran **automatikoki ixten den ate bikoitza** jarri eta haize-babeserako atartea egingo zaio. Ate bikoitz hori itxita egongo da beti, aktibitatea martxan dagoen bitartean. 4. taldeko lokaletan ate bikoitza derrigorrezkoa izango da, kasu guztietan.

Edonola ere, **ez dira** ondoko balio hauek **gaindituko: 38 dB(A) 22ak arte, eta 28 dB(A) goizeko 8ak arte**, etengabeko Leq maila baliokidean, minutu 1ean; eta inguruko etxebizitzetako logeletan, sukaldeetan eta egongeletan, **45 dB(A)-ko gehienezko puntako balioa 8etatik aurrera, eta 35 dB(A) 22etatik aurrera**. Inguruko lokalek ere ez dituzte aipatutako balioak gaindituko eguneko ordutegian.

Gehien eragindako eremu babestuaren (edota, haren ordez, bizitzeko egoki den eremuaren) eta bertikalean eta horizontalean haren mugakide den jarduerako lokalaren arteko **inpaktuen zarataren presioaren** gehienezko maila globala, LnT,w (100 eta 5 KHz artean kalkulaturia), **60 dB(A)** izango da.

Artikulu honetan jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, 2., 3. eta 4. taldeetako jardueren titularrek honako dokumentazio hau ekarri beharko dute:

- Maila akustikoa neurtzeko egindako entseguaren emaitzak jasotzen dituen laborategi akreditatuaren txostena, gehien eragindako eremu babestuaren eta jarduerako eremuaren artean aireko zaratarekiko isolamendu-maila globala bermatzen dela jasotzen duena.
- Maila akustikoa neurtzeko egindako entseguaren emaitzak jasotzen dituen laborategi akreditatuaren txostena, gehien eragindako eremu babestuaren eta jarduerako eremuaren artean inpaktuen zaratarekiko isolamendu-maila globala bermatzen dela jasotzen duena.
- Teknikari instalatzaileak sinatutako egiaztagiria, jasotzen duena soinua igortzeko tresnetan soinu-mugatzaileak jarri direla eta ez direla gaindituko Ordenantza honetan ezarritako mugak, edozein puntutan neurtuta.

10. artikulua.- Lehentasuna eskaeretan

Tartea gorde behar duten jardueren kasuetarako, hau da, 3. eta 4. taldeetako jardueretako, halako baterako lizentzia eskatu dela ulertuko da baldin eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena bada espedientea tramiterako onartua izan dadin, Udal Zerbitzu Teknikoek eman beharreko hirigintzako txostena aldekoa izan delako.

Baldin eta lokal baterako lizentzia eskatzen bada eta, distantzia dela-eta, lizentzia hori bateraezina bada lehentasuna duten beste eskatzaileek izendatutakoarekin (beste eskatzaile horiek jadanik dokumentazioa aurkeztu dutelako eta dokumentazio horrek lehen paragrafoan adierazitakoa betetzen duelako), eskaera hari ezezkoa emango zaio eta lehentasuna dutenen eskaera izapidetzen jarraituko da.

Data berean bi lizentzia eskatu badira, lehen paragrafoko baldintzak beteaz biak ere, lehentasuna izango du Sarrerako Erregistro Orokorrean zenbaki txikiena duen espedienteak.

Egindako kontsulta bati baiezkua emateak ez du berez eta beste gabe jarduera bat instalatzeko eskubide itzulezina sortzen, baldin eta kontsulta horri erantzun zitzaionetik lizentzia eskatu bitartean igarotako denboran aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasua ematen bada. Kasu horretan lehentasuna izango du tramitera onartua izan den lizentziaren datak.

Egin berri diren eraikinei dagokienez, ez dira izapidetzeko onartuko higiezinaren Lehen Erabilerako Baimena baino lehenagoko data duten lizentzia-eskaerak edo jarduera hasteko jakinarazpenak. Berrantolatu, handitu, eta abar egingo diren eraikinek ere tratamendu berdina jasoko dute, baldin eta, indarrean dagoen planeamenduaren arabera, Lehen Erabilerako Baimena behar badute.

11. artikulua.- Talde-aldaketa

Instalatuta egon eta indarrean dagoen baimena duten jarduera guztiek aukera izango dute talde bereko edo azpiko taldeko jarduera batera aldatzeko.

Goragoko talde bateko jarduerara aldatzea eskatzen den kasuetarako, behar bezala egiaztatuko da talde berri horri dagozkion baldintza guztiak betetzen direla.

Ez da gutxieneko distantziaren mugarik egongo jarduera taldez aldatzen denean, baldin eta Ordenantza honi onspena ematen zaionean jarduera jadanik ezarrita badago.

12. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

12.1.- Kontsulta

Jarduera Sailkatuaren Lizentzia eskatu edota jarduera hasteko Aurretiazko Jakinarazpena aurkeztu baino lehen, horren sustatzaileak Udalari kontsulta egin ahal izango dio, lizentziaren baldintza juridiko eta teknikoei eta aurreikus daitezkeen neurri zuzentzaileei buruzko informazioa eman diezaioten eta jardueraren bideragarritasun formalari buruzko informazioa eskuratu ahal izateko.

Kontsulta-eskaerari honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio:

- Jarduera deskribatzen duen **memoria**. Bertan, espresuki adieraziko da jarduera zein taldetan egongo den.
- Lokaleko oin-planoa, altxaera eta sekzioa jasotzen duten **planoak**, 1/100 eskalan.

12.2.- Jarduera Lizentziaren menpe dauden Jarduera Sailkatuak

Honako jarduera hauek Sailkatutako Jardueren Lizentzia beharko dute:

- Dantzalekuak eta jaiak egiteko establezimenduak, klubak, diskotekak, disko-tabernak, karaokeak, pubak eta antzekoak. (3. eta 4. taldeak).
- Ostalaritza eta jatetxe establezimenduak, eta jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jardueretakoak (1. eta 2. taldeak), betiere honako baldintzen artekoen bat betetzen badute:
 - 300 pertsonentzako edo gehiagorentzako tokia izatea.
 - 4 ohmioko karga estandarerako, 50 vatio baino gehiagoko potentzia eraginkorra duen musika ekipoa izatea.

Jarduera Sailkatuaren Lizentzia eskatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskumena duen teknikariak sinatutako **proiektua**, jardueraren deskribapena eta jarduera horrek ingurumenean, pertsonengan edota horien ondasunengan izan dezakeen eragina txikiagotzeko ezarritako neurriak jasotzen dituen (3 ale).

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, eta Jarduera Lizentzia eman aurretik, Autonomia Erkidegoko ingurumen-arloko organo eskudunak edo foru-organo eskudunak txostena emango dute. Bertan, neurri zuzentzaileak ezarriko dizkiote aurkeztutako Jarduera Proiektuari.

Jarduera Sailkatuen Lizentzian jasotako neurri zuzentzaileak ezarri eta instalazioak egokitu eta gero, jarduera hasteko Aurretiazko Jakinarazpena egin beharko da.

Aurretiazko Jakinarazpenari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

- Teknikari eskudunak sinatutako **egiaztagiria**, jarduera aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datorrela eta ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla bermatzen duena.
- Isolamendu eta intsonorizazio baldintzei buruzko **txostenak eta egiaztagiriak**, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Jardueraren titularrak bertara bildutakoei eragindako kalteen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzeko **aseguru-polizaren kopia**; kalte horiek lokalen baldintza objektiboetatik, bertako instalazio eta zerbitzuetatik edota bertako langileen jardueratik eratorriak izango dira, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritakoaren arabera.

Behin jakinarazpena eginda, hura aurkeztu den egunetik bertatik ekin ahalko zaio jarduerari.

Jardueraren hasiera, haren titularren eta egiaztagiria eman duten teknikarien erantzukizunpean egingo da. Hori horrela, jarduera hasteko beharrezkoak izango dira sektoreko araudian jasotako nahitaezko titulu administratiboak, gaitasuna ematen dutenak edota aurretiazko kontrolari dagozkionak.

12,3.- Jarduera hasteko Aurretiazko Jakinarazpenaren menpe dauden Jarduera Sailkatuak

Jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren menpe egongo dira aurretiazko Jarduera Sailkatuen Lizentziaren menpe ez dauden establezimendu guztiak. Aurkeztu beharreko Memorian, jarduera Aurretiazko Jakinarazpen prozeduran sartzeko arrazoiak eman behar dira.

Aurretiazko Jakinarazpenaren menpe dagoen jarduera bati hasiera emateko, behin instalazioak prest daudenean, sustatzaileak aurretiazko jakinarazpena formalizatu behar du Udalaren aurrean eta, hala badagokio, sektorerako ezarritako lizentziak edo baimenak izan behar ditu.

Aurretiazko Jakinarazpenari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

- **Memoria**, ondoko hauek jasotzen dituenak: jardueraren deskribapena eta jarduera horrek ingurumenean, pertsonengan edota horien ondasunengan izan dezakeen eragina txikiagotzeko ezarritako neurriak; eta jarduera Aurretiazko Jakinarazpen prozeduran sartzeko arrazoiak.
- Teknikari eskudunak sinatutako **egiaztagiria**, jarduera aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datorrela eta ingurumen-arloko baldintza guztiak betetzen dituela bermatzen duena.
- Isolamendu eta intsonorizazio baldintzei buruzko **txostenak eta egiaztagiria**, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Jardueraren titularrak bertara bildutakoei eragindako kalteen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzeko **aseguru-polizaren kopia**; kalte horiek lokalen baldintza objektiboetatik, bertako instalazio eta zerbitzuetatik edota bertako langileen jardueratik eratorriak izango dira, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritakoaren arabera.

Behin jakinarazpena eginda, hura aurkeztu den egunetik bertatik ekin ahalko zaio jarduerari.

Jardueraren hasiera, haren titularren eta egiaztagiria eman duten teknikarien erantzukizunpean egingo da. Hori horrela, jarduera hasteko beharrezkoak izango dira sektoreko araudian jasotako nahitaezko titulu administratiboak, gaitasuna ematen dutenak edota aurretiazko kontrolari dagozkionak.

Jarduera batek, bere funtzionamenduan, ezarri zaizkion mugak gainditzen baditu, Jarduera Sailkatuen Lizentziaren erregimena aplikatuko zaio.

12.4.- Obra-lizentzia

Obra-lizentziak dagokion izapidetzea jarraituko du, Jarduera Sailkatuen Lizentzia edota jarduera hasteko Aurretiazko Jakinarazpena alde batera utzita.

Ez da obra-lizentziarik emango, Jarduera Sailkatuen Lizentziaren menpe dauden jardueretarako, Jarduera Lizentzia ematen ez zaien bitartean.

Aurretiazko Jakinarazpenaren menpe dauden jardueren kasuan, hasteko jakinarazpena ez da aurkeztuko obrak amaituta egon arte eta emandako obra-lizentziaren baldintzetan galdatutako obraren amaierako dokumentazioa aurkeztu arte.

13. artikulua.- Jarduerak hedatzea eta bereiztea

Ordenantza honetan jasotako edozein establezimenduk handitzeak egin ahal izango ditu, hurrengo baldintza hauek betetzen baditu:

- Jatorrizko jardueraren eta handitzearen artean komunikazio iraunkorra egongo da beti, etorkizunean titulartasun bat baino gehiago egoteko aukerarik egon ez dadin.
- Handitzeak ez du izango modu autonomo eta bereizian funtzionatzea ahalbidetuko lukeen elementurik.
- Handitzeak ez du ekarriko jatorrizko establezimenduaren sailkapena aldatzea. Hala egingo balu, 11. artikulua jardueraren aldaketari buruz ezarritakoa bete beharko da.

Ez da inola ere onartuko Ordenantza honetako jarduera bat beste batzuetan zatitzea, edota harengandik Ordenantza honen eremu barruan egon daitezkeen atalak edo sailak bereiztea.

14. artikulua.- Jarduera Lizentziak iraungitzea

Ordenantza honek eragindako Jarduera Lizentziak iraungitzeko espedienteak izapidetzen hasiko dira, aurretiaz interesatuari audientzia eman eta gero, honako kasu hauetan:

- a) Obra-lizentzia eman zenetik sei hilabete igaro direnean obrak hasi gabe.
- b) a) atalean ezarritakoa aparte utzita, obrak edo instalazioa amaitu ez direnean baimenean adierazitako epean.
- c) establezimendua jendearentzat itxita dagoenean sei hilabete edo gehiagotan zehar.

Iraungitzeak eragingo die ere lehenagoko araudien aplikazioaren ondorioz Irekiera edo Jarduera Lizentziak dituzten jardueri.

15. artikulua.- Udal ikuskaritza eta zaintza

Halako establezimenduen titularrek, jabeek edo arduradunek Udaltzaingoari edo Udal Ikuskaritzari beraien instalazioetara sartzen utzi beharko diote, ikuskaritzan eta kontrolean dabilizan langileek eskatutako guztietan.

Pertsona natural edo juridiko orok salatu ahal du, Udalaren aurrean, Ordenantza honen barruko edozein jardueraren ez-ohiko funtzionamendua.

Udaleko ikuskaritza eta kontrol arloko langileek egiaztatu badute establezimenduak ez duela betetzen Ordenantza honetan edota legezko beste xedapen batzuetan ezarritakoa, horri buruzko akta jaso eta interesdunari kopia emango zaio. Aldi berean, Udaleko Arlo eskudunari jakinaraziko zaio, dagokion espedienteari hasiera eman diezaion; horren helburua da jardueraren titularrak dagokion araudiari egokitzea, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 27ko Ingurumenaren Babeserako 3/1998 Lege Orokorrean ezarri bezala.

Administrazioak Ordenantza honetara egokitu daitezela exijitu ahal izango die udalerrian gaur egun martxan dauden establezimendu guztiei, baita Ordenantza hau indarrean jarri aurretik funtzionatzen egon eta bertan aurreikusitakoarekin bat ez datozenei ere.

16. artikulua.- Titulartasunaren aldaketak

Ostalaritzako jarduera baten titulartasun-aldaketa izapedetzeko, interesdunak titulartasun-aldaketa espresuki eskatu behar du, eta honako dokumentazio hau aurkeztu:

- Teknikari eskudunak emandako **egiaztagiria**, jarduerak ingurumen arloko baldintza guztiak betetzen dituela eta, hala badagokio, emandako Jarduera Lizentzian adierazitako baldintzak betetzen dituela bermatzen duena.
- Teknikari instalatzaileak sinatutako **egiaztagiria**, jasotzen duena soinua igortzeko tresnetan soinu-mugatzailleak jarri direla eta ez direla gaindituko Ordenantza honetan ezarritako mugak, edozein puntutan neurtuta.
- Jardueraren titularrak bertara bildutakoei eragindako kalteen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzeko **aseguru-polizaren kopia**; kalte horiek lokalen baldintza objektiboetatik, bertako instalazio eta zerbitzuetatik edota bertako langileen jardueratik eratorriak izango dira, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritakoaren arabera.

Ekainaren 11n sartu zen indarrean 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurzoruan egiteko diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko diren izaera orokorreko arau teknikoak jasotzen dituena. Dekretu hori indarrean sartu aurretik hasitako jardueretarako, bertako Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari men egingo zaio.

17. artikulua.- Terrazak

Ostalaritzako terrazei berezko Udal Ordenantzan jasotakoa aplikatuko zaie.

18. artikulua.- Zehapenen erregimena

Arau-hausteei, zehapenei eta zehapen-prozedurari dagokionez, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legean eta Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritakoa beteko da.

19. artikulua.- Ordenantza indarrean sartzea

Ordenantza hau indarrean sartuko da haren behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.

Hala eta guztiz ere, ostalaritzako terrazek bete beharreko baldintzak arautzeko Ordenantza espezifiko onartzen ez den bitartean, ostalaritzako establezimenduak arautzen zituen aurreko Udal Ordenantzako 16. artikulua (terrazei buruzkoa) indarrean egongo da.

20. artikulua.- Ordenantza indarrean egotea

Ordenantza hau indarrean egongo da Basauriko Udalak berau ordeztzeko beste bat onartu eta argitaratzen ez duen bitartean edota erakunde eskudun batek Ordenantza honen edukia zabaldu, aldatu edota eduki horrekin kontraesanean dagoen goragoko mailako xedapenik ematen ez duen bitartean.

21. artikulua.- Xedapen iragankorra

Ordenantza honi hasierako onespena ematen zaionetik behin betiko onspena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu bitartean, aurreko Ordenantzak xedatutakoari men egingo zaio.

Ordenantzaren aldaketa: 2013ko otsailaren 28an egindako osoko bilkuran. 2013ko maiatzaren 21an BAOn argitaratu da (osorik)